



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA. GAIA: ARABAKO FORU OGASUNAREN ARLOKO JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK ARAUTZEN DITUEN FORU DREKETU PROIEKTUA.**

Bat etorriz xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak
- b) onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) arauaren helburuak
- d) izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, foru ogasunaren arloko jakinarazpen elektronikoi buruzko arau esparrua ezarriko duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, .....(e)ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Zergei buruzko Foru Arau Orokorra.
--------------------	------------------------------------



<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Ez dago jakinarazpen eta komunikazioei buruzko egungo arau esparrua Arabako Foru Ogasunaren arloan garatzen duen berriazko araudirik.
<b>ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	Beharrezkoa da Arabako Foru Ogasunerako berriazko araudia eta egungo legeriara egokitua izatea.
<b>HELBURUAK</b>	Arabako Foru Ogasunaren arloko jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen berezitasunak arautzea.  Jakinarazpenak eta komunikazioak egungo arau esparrura egokitzea aipatutako arloan.
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	Uste da ez dagoela beste aukera egokirik.